

K Arte Garaikideko Hiztegia

Kalkomania. Surrealistek erabiltzen zuten idazkera automatikoaren sistematik (*écriture automatique*) pintura-teknika berri asko sortu ziren, eta horien artean Oscar Domínguezek 1939an asmatutako kalkomania. «Pintzel lodi batekin paper liso baten gainean ematen da, irregularki, urrutako gouache beltza; horren kontra, presio arin samarra eginez, antzeko beste paper bat jartzen da, eta kontuz-kontuz altxatzen da ondoren.» (*Dictionnaire abrégé du Surrealisme*).

Kamara iluna. Kamara itxi bat da, zirrikitu txiki baten bitartez aurrean daukan objektua gainazal mate edo plaka fotografiko baten gainean proiektatzeko gauza dena. Ateratzen den irudiari, kamara ilunaren ezaugarria izaten den ertz zirriborrotsu bat ikusten zaio beti.

Kartel-muntaia. Kartel-muntaia, fotomuntaia bezala, dada mugimenduari sortu zitzaion premiari erantzunez sortu zen, alegia ahal zen neurrian behatzailearekin erabateko batasuna lortzeko egiten zuen ahaleginaren ondorioz. Kartel-puskekin eta inpresio tipografikoko produktuekin osatutako kartel-muntaia azalpen satiriko-politiko bezala erabiltzen zuten hogeiko urteetako Berlingo dadaistek, proklama moduan egindako propagandarekin burgesia bere lozorrotik iratzartzeko, artea bere isolamendu elitista hermetikotik atera eta garaiko konpromisu kritikorako berreskuratzeko. Haien funtsezko desira errealitatearekin eta ingurunearen egitura sozio-zibilizatzailearekin harmonizatzea zen; desira horrek eraginda hasi ziren arte-espresio modu berriak bilatzen 1915 eta 1920 bitarteko urteetan, bai mendebaldeko Europan eta Amerikan eta baita ekialdeko Europan ere. Erabilera arrunteko hainbat material kolatzen hasteko metodo hori egunera jartzeko eta bizitzarekiko zuzeneko erreferentzia bat aurkitzeko premiatik sortu zen. Horregatik ez da harriztekoa abangoardia errusiarreko artistak ere, iraultza-ondorengo kultura politiko liberalaren garaian, arte-espresio berri baten mendebaldeko erdiespen hura onartu eta beren kutsu bereziz landu izana.

Kartela. Publizitateko grafismoaren barruan sartu behar da, lehenik, kartela, halako gorabehera jakin batzuei buruz atentzioa deitzen saiatzen baita nabarmen-nabarmenki, bere egikera grafikoaz baliatuz batez ere. Toulouse-Lautrec-en inpresionismo berantiarreko karteletatik eta espresionistek eta dadaistek berezkoa zuten grafismo gogor markatutako grafismoekiko kartelaren artean abiatuz, hogeigarreneko urteetan kartelak egiteko arte-estilo berezi bat sortu zen, elementu formalak erabiltzen zituena inpresio txundigarria sortzeko asmoarekin. Hala, adibidez Berlineko talde dadaistak batez ere, kartela bihurtu zuen bere espresio-organorik nagusien, eta kartela erabiltzen zuen ikuslearen gain berehalako eragin bat sortzeko asmoarekin, horretarako collagea, tipografia librea eta fotomuntaia baliatuz. Abangoardia errusiarren arte iraultza-ondokoak ere oso modu aipagarrian bultzatu zuen kartel-arte, zeinu-mintzaira izugarri espresakorra erabiliz, eta bere sakon sartzeko moduko indar azalgarriarekin hitza alferrikako egiten duen marrazkigintza kartelistikoa bat aurkituz.

Collagearen teknikaren barruan kartelak funtsezko eginkizun bat bete izan du muntaketa-material bezala erabiltzeko orduan. Hains, Vostell, Villegré, Dufrene eta Rotellaren *décollage*-etan, bata bestearen gain kolatzen joandako kartelak urratuz ateratzen da koadroa.

Klasizismoa. 1.- 1770 eta 1830eko urteen bitarteko garai hartan izandako estiloaren eboluzioari aplikatzen zaion izen historiko-artistikoa da; arte plastikoei dagokionez, barrokoaren eta rokokoaren artean egin beharreko muga markatzen du.

2.- Forma artistikoak Antzinako arauetan sustraitzeko funtamentazio programatikoa izendatzeko erabiltzen den deitura generikoa da; jarrera klasizistaren asmoa, hala ere, ez da Antzinatea eratzen zuten printzipioak piztea, garai hartako izpiritu artistikoari doitzen zaizkion arau eta patroiz zaharrak erabiltzea bakarrik baizik. Zentzu honetan, Errenazimentutik hona gertatu izan dira mugimendu klasizistak artean, baina, bai

arte plastikoetan eta bai literaturan, aldizka-aldizka errepikatzen diren mugimenduak izaten dira, eta, gehienetan, nagusi dabilen korrante estilistikoa utzi eta beste estilo berri bat erretzen ari dela adierazi nahi izaten dute.

Koadroa. Bi dimentsioko gainazal baten gainean egindako arte-lanari ematen zaion izena da —gehienetan pintatua izaten da—, eta espazioan leku bat hartuz egindako eskulturarekin eta *environment*-aren konfigurazio espazial bilkariarekin kontrajarriz ulertu behar da.

Kolore akriliko edo biniliko. Poliesterrez egindako koloretzaile bat da, oleoaren ordez erabiltzen dena, eta erretxin lakatuaren antzeko gainazala ematen du. Kolore akriliko edo binilikoak tokia kendu dio oleoari, batez ere pop artean eta hiperrealismoan, oihal gaineko pinturaren arloan. Disdira bereziki argitsu eta ikusgarria ematen du, eta publizitatearen industriarekiko ideia-asoziazio bat sortzen du horrek.

Komikia. *Comics strips* esamoldearen laburdura da, eta gertaldikako nobela merke eta aldizkari ilustratuetan erabiltzen zen genero pikturiko jakin eta arrunt bat izendatzeko erabiltzen da. Komikietan abenturarako kontakizunak ematen dira binetetan eta testu labur batekin lagunduta, eta gehienetan eduki oso primitibo eta gordina izaten dute. Heroiak superizarrak izaten dira; funtsean nortasun individualik ez dute izaten eta indar fisikoarengatik nabarmentzen dira. Gehienetan komikiak gertaldika emandako istorioak izaten dira. *Pop art*-eari esker hartu du Komikietako ikonografia topikoak arte-mailako garrantzia, batez ere Roy Lichtensteinek komiki moduan eta tamaina erraldoietan pintatutako koadroei esker; koadro horietan, izan ere, Lichtensteinek irudiaren tamainaren superdimensionalizazioaren bidez lortzen du genero honen gestikulazio arrunt, bizigabe eta despertsonalizatuaren kontzientzia azalaraztea.